

Egoeraren Azterketa



Egoera sozial eta ekonomikoaren azterketa

Ekonomiaren bilakaera

Krisiari eta aberastasunaren banaketari buruzko ondorioak

Deflazioa eta devaluazioa


Enpleguaren bilakaera

Lan-baldintzak gero eta okerrago

Enpleguaren egoerari buruzko ondorioak

Hego Euskal Herriko (*) lan- eta ekonomi-egoeraren adierazleak

	DATUA	ERREFERENTZI ALDIA	12 HIL. LEHENAGO
ENPLEGUA ETA LANGABEZIA (**)			
JARDUERA TASA (%)	74,9	2014ko II. HIRUHILEKOA	75,2
JARDUERA TASA 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%)	72,2	2014ko II. HIRUHILEKOA	72,0
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	1.132.800	2014ko II. HIRUHILEKOA	1.136.800
SOLDATAPEKO BIZTANLERIA	943.300	2014ko II. HIRUHILEKOA	942.900
ALDI BATERAKO ENPLEGU TASA (%)	21,3	2014ko II. HIRUHILEKOA	20,8
ALDI BATERAKO TASA 28-EB-EAN (%)	13,8	2014ko II. HIRUHILEKOA	14,0
BIZTANLERIA LANGABETUA	217.000	2014ko II. HIRUHILEKOA	227.800
LANGABEZIA TASA (%)	16,1	2014ko II. HIRUHILEKOA	16,1
LANGABEZIA TASA 28-EB-EAN (%)	10,9	2014ko II. HIRUHILEKOA	10,2
GAZTEEN LANGABEZIA TASA (%)	45,2	2014ko II. HIRUHILEKOA	48,3
GAZTEEN LANGABEZIA TASA 28-EB-EAN (%)	23,2	2014ko II. HIRUHILEKOA	21,6
EMAKUMEEN LANGABEZIA TASA (%)	15,6	2014ko II. HIRUHILEKOA	16,1
EMAKUMEEN LANGABEZIA TASA 28-EB-EAN (%)	10,9	2014ko II. HIRUHILEKOA	10,2
SINATURIKO KONTRATUAK	771.215	2014ko IRAILA	679.242
KONTRATATU MUGAGABEAK	49.500	2014ko IRAILA	42.515
ESKAINZA ETA ESKARIA			
INDUSTRI PRODUKZIOA EAEn (%ALD.)	1,6	2014ko UZTAILA	-1,8
BPGd EAEn (%ALD.)	0,9	2014ko II. HIRUHILEKOA	-1,5
BPGd NAFARROAN (%ALD.)	1,6	2014ko II. HIRUHILEKOA	-1,6
BPGd ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	1,2	2014ko II. HIRUHILEKOA	-1,6
BPGd 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	1,2	2014ko II. HIRUHILEKOA	-0,1
PREZIOAK			
URTEARTEKO KPIa ESPAINIAR ESTATUAN (%ALD.)	-0,5	2014ko ABUZTUA	1,5
URTEARTEKO KPIa 28-EUROPAKO BATASUNEAN (%ALD.)	1,7	2014ko UZTAILA	0,6
Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkie. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da.			
Iturriak: Eustat, Nafarroako Estatistika Erakundea, Eurostat, Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, Osalan, Instituto Navarro de Salud Laboral, Instituto Nacional de Empleo, Instituto Nacional de Estadística, ELAko Lan Osasun Alorra			
2014/10/02ean eguneraturiko informazioarekin			



Aurkibidea

EGOERAREN AZTERKETA

1. Ekonomiaren bilakaera.....	4
2. Krisiari eta aberastasunaren banaketari buruzko ondorioak	5
3. Deflazioa eta debaluazioa	6
4. Enpleguaren bilakaera	7
a) Enplegua suntsitzea.....	7
b) Langabezia erregistratuaren bilakaera.....	9
c) Gizarte Segurantzarako afiliazioa	10
5. Lan-baldintzak gero eta okerrago	11
a) Aldi baterako kontratazioa.....	11
b) Kontratazio partziala	11
c) Prekarietateak soldata apalagoak eragiten ditu	12
6. Enpleguaren egoerari buruzko ondorioak	13

ERABILITAKO SIGLAK

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPGd	Barne Produktu Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
NEI	Nafarroako Estatistika Institutua
EIN	Estatistika Institutu Nazionala
BJA	Biztanle Jardueraren Azterketa

EGOERAREN

A Z T E R K E T A

Sarrera

Egoerari buruzko azterketa honetan ekonomia nola bilakatu den eta enplegua zertan den izanen dugu aztergai, eta kontratazio berriak nahiz haien lan-baldintzak aztertuko ditugu bereziki.

* Txosten hau 2014/10/02ean eguneraturiko informazioarekin burutua izan da

1. Ekonomiaren bilakaera

Barne Produktu Gordinari buruzko azken datuek diote BPGda zertxobait hazi dela, aurreko urteko epealdi berarekin alderatuta. Bilakaera horren aurretik, ekonomiak behera egin zuen, hala Hego Euskal Herrian nola Espainiar Estatuan eta 28-EBn, bilakaera lurraldez lurralde ezberdina izan bada ere.


Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 2014ko bigarren hiruhilekoari dagokio, eta horren arabera, BPGa % 0,9 igo zen, 2013ko epealdi beraren aldean. Aurreko hiruhilekoan, urte arteko aldaketa-tasa % 0,4 izan zen, eta aurretik ere BPGa jaitsi egin zen 2011ko laugarren lauhilekotik aurrera."

Nafarroan, BPGdak antzeko bilakaera izan du, eta 2014ko bigarren hiruhilekoan %1,6 hazi da. Aurtengo lehen hiruhilekoan, hazkundea %0,6 izan da, eta aurretik, BPGdak etengabeko beherakada izan zuen 2012ko lehen hiruhilekotik aurrera.

Espainiar Estatuan, urte arteko hazkunde-tasa %1,2 izan da 2014ko bigarren hiruhilekoan, eta aurretik beheranzko bilakaera izan zuen, 2011ko bigarren hiruhilekotik aurrera 2014ko lehen hiruhilekora bitarte, non %0,5 igo baitzen.

Europari dagokionez, ekonomia 1,2 puntu hazi da 2014ko bigarren hiruhilekoan, urte arteko bilakaerari dagokionez, hau da, aurreko hiruhilekoan baino gutxiago (%1,4). Esan daiteke Europako ekonomiak ez duela suspertze seinalerik ematen. Aitzitik, Estatu batzuk (Italia eta Frantzia, adibidez) ia atzeraldian daude, eta Alemaniak joera negatiboko emaitza ekonomikoak izan ditu.

BPGd merkatu prezioetan, urte arteko hazkunde-tasak (%).28-EB, 2008-2014




Iturriak: Eurostat, Eustat, IEN, INE

Europako ekonomia geldialdian dagoenez, Europako Banku Zentralak (EBZ) honako neurri hauek hartu zituen joan den irailaren 4an:

- Bankuek EBZren maileguengatik ordaindu behar duten interes tasa %0,05era jaitea.
- Europako Banku Zentralean dirua gordailatzen duten bankuek %0,20ko interesa ordaindu beharko diote.
- Bankuei kreditu gehigarriak ematea epe luzera 400.000 milioi eurotan.
- Bankuei finantza-aktiboak erostea, bankuek Enpresa Txiki eta Ertainei emandako kredituekin bermatuta daudenak.

Neurri horiek azken urteotako ildoan sakondu dute. Izan ere, haien esanetan, horrelako neurriak hartzen dituzte, hazkundea eta enplegua bultzatu nahi dituztelako. Begi-bistakoa da ez dutela halakorik lortu. Orduan, zergatik tematu dira porrot egindako politikarekin?

Erantzuna Eric Toussaint-ek idatzitako artikuluan aurkitu dugu. Honatx izenburua: "Super Mario Draghi 2.0 bankarien alde". Hona ekarriko dugu hitzez hitz: "porrota agerikoa bada helburu ofizialei dagokienez, ez da gauza bera gertatu, baldin eta EBZren Europako agintarien agenda ezkutua kontuan hartzen bada. Izan ere, herrialde indartsuenetako agintarien eta korporazio handietako zuzendarien helburua ez da krisialdi honetan hazkundea bultzatzea, ezta EBko ekonomia indartsuen eta ahulen arteko asimetriak murriztea ere. Aitzitik, ederki pozten ditu gune



ekonomiko, komertzial eta politiko batu bat eratua egoteak, non Periferiaren erorialdiak onura ekartzen baitie, eta haien artean ere onuragarriak dira Europako soldatapeko langile guztiei ezarri zaizkien sakrifizioak, enpresen errentagarritasuna hobetzeko eta lehiakortasunean puntuak irabazteko. Gobernuak eta ugazabek hainbat tresna erabiltzen dituzte, Europar Batasunaren Mundu Gerratik hona herritar gehienek eskubide ekonomiko eta sozialen kontra egin den erasorik handienean aurrera jotzeko: langabeziaren hazkunde dramatikoak; izugarri igo den zor publikoa itzultzea; aurrekontu orekatuak egin beharra aitzakia gisa erabiltzea, zertarako eta gastu sozialean eta zerbitzu publikoetan murrizketa latzak egiteko; eta EBko kide diren Estatuak lehiakortasuna hobetu nahi izatea, bai Estatu bakoitzaren bestearekiko, bai munduko lehiakidearekiko. Ikuspuntu horretatik, EBZren politikak ez du porrot egin."

Begi-bistakoa da, beraz, horrelako politikak eragiten dituzten interesak botere ekonomikoaren eta finantzarioaren zerbitzuan daudela, eta hori horrela izanda, argi dago munitateak datzekion eztabaida hori saihestu nahi dutela, horrek goitik behera jarriko lituzkeelako kolokan orain aplikatzen ari diren politikak. Eztabaida hori saihesteko, herritarrei behin eta berriz esaten diete egoerak hobera egingo duela, orain arteko moneta-politikak areagotzen badira eta, era berean, egiturazko erreformak areagotzen badira (hau da, denetariko murrizketak kapitalaren alde). Horrela, Europar Batasunaren gunean kapitalismoa birformulatzen ari da, gero eta era erasokorragoan, gainera.

2. Krisiari eta aberastasunaren banaketari buruzko ondorioak

Kontuan hartu beharreko beste elementu bat da aberastasunaren banaketari eman behar zaion lehentasuna. Ekonomiaren bilakaerari buruzko diskurtso ofizialetan esaten ari zaigu azken bi hiru hilabeteetako hazkundearekin krisitik ateratzen ari garela. Hau da, esaten da krisi garaian

ekonomia gelditu edo beheratu egiten dela; horrenbestez, BPGdak berriz ere hazkunde positiboa badu, krisia desagertu da. Eta aberastasunaren banaketa eztabaida ofizialetik kanpo gertatzen da.


Diskurtso hegemoniko hori zalantzan jarri beharra dago. Aberastasunaren banaketa ekarri behar dugu eztabaidaren muinera. Banaketa lehenetsi behar da, ez hazkundera. Krisia ez da BPGd erortzea. Krisia da langabezia, pobrezia, miseria edo ezegonkortasuna eragiten duten baldintza ekonomikoaren multzoa. Bizi-kalitateari mehatxu egiten dioten gauza guztiak dira. Beraz, testuinguru horretan, kontua ez da nola atera geldialdi ekonomikotik, baizik eta ekonomia bidezkoago, egonkorrago eta sostengatuago bat urratzea. Eta horretarako, gakoak banaketan datza.

Batetik, egungo sistema ekonomiko honetan, gerraren negozioa eta heriotza hartzen dira kontuan BPGdan; ez, ordea, lagun maiteen zainketa. Bestetik, argi dago ez dela posible hazkunde ekonomiko mugagabea, gure planetak muga fisikoak baititu. Eta azkenik, esan behar da zergatik kendu nahi duten eztabaidaren muinetik aberastasunaren banaketa, gertatzen ari denarekin oso gustura daudelako. Gu, ordea, ez.

Joan den mendeko azken hamarkadetan gertatu zen bezala, XXI. mendean soldatapekoen ordainsarien kontua pisua galtzen ari da BPGdarekiko. Hau da, ekonomiaren zati gero eta txikiagoa bideratzen da laneko errentak ordaintzera. Adibidez, EAEn, 2000n, BPGdaren %51 bideratzen zen soldatapekoak ordaintzera, eta 2012an, berriz, %46,4; hau da, 4,6 puntu gutxiago (2.926,6 milioi euro).

Behera jo du, hortaz, soldatapeko enpleguaren pisuak aberastasunean, eta hori horrelaxe izan da hala hazkunde ekonomikoa izan denean nola beharaldia izan denean. Horrela, soldatapekoen ordainsarien pisua %49,2 izan zen 2008an, EAEn (1,8 puntu gutxiago 2000n baino, eta 2,8 puntu gehiago 2012an baino). Aitzitik, gero eta handiagoa da enpresen etekinen zatiaren pisua, hau da, ustiapeneko soberakin gordinaren pisua. 2008tik 2012ra, 2,1 puntu igo da, eta %42,4tik %44,5era igaro da.


Aberastasunaren banaketaren bilakaera, EAE, 2008-2012



Iturria: INE

Nafarroan, bilakaera berbera da. 2000tik hona soldatapeko enpleguak 4,9 puntu galdu ditu, eta BPGdaren %47tik %42,1era igaro da 2013an. Galera hori 885,7 milioi euroren baliokidea da. Aldiz, enpresen etekinak hazi egin dira. Hau da, ustiapeneko soberakin gordina BPGdaren %43tik (2000) BPGdaren %48,8ra (2013) igaro da; 5,8 puntu gehiago, alegia.

Aberastasunaren banaketaren bilakaera, Nafarroa 2000-2013




Iturria: IEN

3. Deflazioa eta debaluazioa

Prezioen bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu urte arteko KPIa $-0,5$ izan dela 2014ko abuztuan Espainiar Estatuan; hau da, prezioak $0,5$ txikiagoak izan dira 2013ko abuztuan baino (uztailean, KPIa $-0,3$ izan zen).

Europari dagokionez, KPIa $0,6$ izan zen uztailean (eskura dugun azken datua), eta azken hilabeteetan antzeko datua izan zen, baina hor ere ikusten da inflazioa gero eta txikiagoa izatearen joera.

KPIaren urte arteko igoerak (%). 28-UE8, Espainiar Estatur, 2013-2014




Iturria: INE, Eurostat

Prezioen hazkunde negatibo etengabeari deflazio deritzo; hau da, prezioak hilabetez hilabetera gero eta txikiagoak izateari, urtebete lehenagokoak baino.

Prezioen hazkundeari buruzko datuak KPIaren kalkulutik datoz; hau da, kontsumorako prezioen indizea kalkulatzetik. KPIa, ustez, batz bestekontsumitzen diren ondasun eta zerbitzuak dira. KPIak oso faktore ezberdinak neurtzen ditu; horregatik, KPIaren balio negatibo bat gerta daiteke, oinarri-oinarrizko elikagaien prezioa igo bada ere; esate baterako, petrolioaren prezioa merkatu bada.

Hori dela-eta ez dira denentzat berdinak prezioak igotzeak edo jaisteak dituen ondorioak, hori pertsona bakoitzaren kontsumoaren eta pertsona bakoitzaren errentaren mende baitago. Beraz, prezioen indizeek zerikusia dute errenta gizarte-klaseen arabera banatzearekin, eta prezioen igoeraren edo deflazioaren ondorioak ere ez dira berdinak denentzat.

Esaten da fenomeno hori ekonomiarentzat arazo dela. Prezioak jaitsiko direla espero bada, kontsumoa uzurtzen da, eta beraz, baita jarduera ekonomikoa ere. Horrela, krisia areagotzen da.



Deflazioa gurpil-zoroaren antzekoa da, etorkizunerako ere deflazioa eragiten baitu.

Ekonomilari ofizialek (hots, egungo hondamen ekonomiko eta sozialera eraman gaituzten politikak defendatzen dituztenek) proposatzen dute interes-tasak jaitsi behar direla eta enpresei likidezia erraztu deflazioari aurre egiteko.

Baina, kontua ez da horren erraza. Arestian aipatutako datuek ederki erakusten dute non erortzen ari diren prezioak Europar Batasunaren baitan, hots, doikuntza-politika erasokorrenak ezarri diren tokietan. Hori ez da inola ere ezustea. Gogor baino gogorrago aplikatu dira soldatak eta gizarte-laguntzak murrizteko politikak (pentsioak, langabezia-sariak, edota beste prestazio batzuk). Halaber, kontuan hartu behar da enplegua erruz suntsitu dela lurralde horietan.

Herritar gehienak pobretzeko politika egiazki erasokorra dago deflazioaren iturburuan. Ez da posible herritar gehienak okerrago bizitzea eta, aldi berean, kontsumorako prezioak oro har igotzea. Begi-bistakoa da lotura handia dagoela soldaten debaluazioaren eta murrizketa-politiken artean (murrizketak bai aurrekontuetan, bai lan nahiz gizarte arloko eskubideetan).

Horrenbestez, Europar Batasuneko gobernuek aplikatutako doikuntza-politika basatien beste ondorio bat da deflazio arriskua. Deflazioaren aurka borrokatzeko, irtenbide sozial bidezkoena da soldatek pisu handiagoa izatea aberastasunean, eta horrekin batera, aurrekontu-politika errotik aldatzea eta gastu publikoa gizarte-politiketan lehenestea (prestazio sozialak eta kalitatezko zerbitzu publikoak).

4. Enpleguaren bilakaera

Ez da batere gauza berria orain esatea babesa eta zerbitzu publikoak suntsitzen ari direla, bai eta laneko eskubideak ere.

Baina orain sinestarazi nahi digute enplegua suspertzen ari dela, langabezian izena emandako pertsona kopurua azken hilabeteotan jaitsi delako.

Enpleguaren bilakaera guztiz txarra izan da azken urteotan. Inoizko mailarik altuenetara iritsi da langabezia, eta hori gertatu da lanpostuak galtzea

ihesbide bat izan delako hala krisiak jotako enpresetan nola beste askotan, non testuinguruaz baliatu baitira langileak kanporatzeko.

a) Enplegua suntsitzea

EPAk 2014ko bigarren hiruhilekoari buruz emandako datuek erakutsi dute biztanleria aktiboa (hau da, lana dutenak edota lan bila aktiboki ari direnak) 1.349.800 lagunez osatuta dagoela HEHn (1.038.300 EAEn, eta 311.500, Nafarroan).

Enplegua dutenak, hau da, **biztanleria landuna** 1.132.800 pertsona izan dira (870.800 EAEn, eta 262.000, Nafarroan). HEHko biztanleria landuna 4.000 lagunetan jaitsi da azken urtebetean (9.300 lagunetan jaitsi da EAEn, eta 5.300 lagunetan igo Nafarroan), eta krisia hasi zenez geroztik, 183.100 enplegu suntsitu dira; %13,9 (35.400 Nafarroan, %12, eta 147.700 EAEn, %14,5).

Enplegu suntsipena, 2008-2014, HEH

	2008-II	2014-II	Aldea
EAE	1.018.500	870.800	-147.700
Nafarroa	297.400	262.000	-35.400
HEH	1.315.900	1.132.800	-183.100

Iturria: EPA

2014ko bigarren hiruhilekoan 943.300 **soldatapeko** izan dira; 733.000 EAEn, eta 210.300, Nafarroan. Azken urtebetean ez da ia aldatu soldatapeko enplegua izan duten pertsonen kopurua (400 gehiago 2013ko epealdi berean baino; hau da, %0,04 gehiago). Hala EAEn nola Nafarroan, bilakaera berbera izan da 2013tik aurrera, Nafarroan ez baita soldatapekoen kopurua aldatu, eta EAEn, berriz, 400 soldatapeko gehiago daude. Krisiaren aurretik hona izandako bilakaerari erreparatzen badiogu (2008ko bigarren hiruhilekoa), HEHn soldatapeko 117.900 enplegu suntsitu dira, hau da, guztira suntsitu diren enpleguen %64,4; zehazki, 88.200 EAEn suntsitu dira, eta 29.700, Nafarroan.

Soldatapeko enpleguaren suntsipena sektorez sektore aztertzen badugu HEHn, ikusiko dugu nekazaritzan (soldatapekoen %0,8k lan egiten du) oso aldaketa txikia izan dela krisia hasi zenetik hona; hau da, 2008az geroztik, %2,6 jaitsi da, eta

Soldatapekoen bilakaera sektorez sektore. 2008-2014, HEH

	Nekazaritza			Eraikuntza			Industria			Zerbitzuak		
	2014TII	2013TII	2008TII	2014TII	2013TII	2008TII	2014TII	2013TII	2008TII	2014TII	2013TII	2008TII
Nafarroa	4.100	5.700	4.700	6.800	8.200	25.700	58.500	63.600	72.600	141.000	132.800	137.000
Pertsonen aldea		-1.600	-600		-1.400	-18.900		-5.100	-9.000		8.200	4.000
%aldea		-28,1%	-12,8%		-17,1%	-73,5%		-8,0%	-12,4%		6,2%	2,9%
EAE	3.300	1.700	2.900	36.100	38.500	64.100	161.600	159.100	210.600	532.200	533.300	543.000
Pertsonen aldea		1.600	400		-2.400	-28.000		2.500	-49.000		-1.100	-10.800
%aldea		94,1%	13,8%		-6,2%	-43,7%		1,6%	-23,3%		-0,2%	-2,0%
HEH	7.400	7.400	7.600	42.900	46.700	89.800	220.100	222.700	283.200	673.200	666.100	680.000
Pertsonen aldea		0	200		3.800	46.900		2.600	63.100		-7.100	6.800
%aldea		0,0%	2,6%		8,1%	52,2%		1,2%	22,3%		-1,1%	1,0%

Iturria: EPA

azken urtebetean ez da aldatu. Eraikuntzan (soldatapeko enpleguen %4,5), 2008tik hona, enpleguen %52,2 suntsitu dira (46.900), eta azken urtebetean, 3.800 enplegu suntsitu dira (%8,1).

Sektore nagusien bilakaera bestelakoa izan da. Industrian (soldatapeko enpleguen %23,3), 2008tik hona, 63.100 enplegu galdu dira (%22,3), eta %1,2 azken urtebetean (2.600 enplegu gutxiago). Zerbitzuen sektorean (soldatapekoen %71,4), aldiz, 2008ko bigarren hiruhilekotik hona, 6.800 soldatapeko gutxiago daude (%1), eta azken urtebetean, 7.100etan igo da (%1,1).

Horrela, industrian soldatapekoen %26,7 ari ziren 2008ko bigarren hiruhilekoan, eta 2014ko bigarren hiruhilekoan, aldiz, %23,3, hau da, 3,4 puntu gutxiago. Zerbitzuetan, berriz, lehenago soldatapekoen %64,1 aritu ziren, eta orain %71,4, hau da, 7,3 puntu gehiago epealdi berean baino.


Lurraldeei erreparatuta, lehenik EAEko soldatapekoen bilakaera aipatuko dugu sektoreen arabera; horrela, nekazaritzan soldatapeko gehiago ari dira (3.300), hau da, soldatapeko guztien %0,5. Eraikuntzan, soldatapekoen %4,9k dihardute, 2008tik hona %47,7 galdu ondoren. Industrian (%22 da) soldatapekoen %23,3 galdu da 2008ko bigarren hiruhilekotik aurrera (49.000 soldatapeko gutxiago); zerbitzuetan, aldiz, (%72,6 da) epealdi berean %2 galdu da; 10.800 lagun gutxiago. Horrela, industria soldatapekoen %25,6tik %22ra igaro da (3,6 puntu), eta zerbitzuen sektorea %66,1etik %72,6ra (6,5 puntu gehiago).

Nafarroan, nekazaritza soldatapekoen %1,9 da (4.100 lagun). Eraikuntzan (%3,2) 6.800


soldatapeko daude, hau da, %73,5 gutxiago 2008an baino (18.900 soldatapeko gutxiago). Industriak (%27,8) soldatapekoen %12,4 galdu du 2008tik aurrera, eta zerbitzuetan, aldiz, %2,9 igo dira. Hala ere, industria soldatapekoen %30,3 izatetik %27,8 izatera igaro da (2,4 puntu gutxiago); aldiz,

zerbitzuen sektorea 9,9 puntu igo da (%57,1etik %67ra).

Langabezia-tasa 28-EB. 2014ko II hiruhilekoa



Iturria: Eurostat, EPA



HEHko langabezia-tasa %16,1 da, EPAk 2014ko bigarren hiruhilekorako eman dituen datuen arabera. Europa osoan (2014ko bigarren hiruhilekoan) hirugarren langabeziarik handiena izan da, eta haren aurretik bakarrik daude Espainiar Estatukoa (%24,6) eta Greziakoa (%26,6). Horrela, HEHko langabezia-tasa 5,9 puntu handiagoa da 28-EBko batez bestekoa baino (%10,2 baita).

EAEko langabezia-tasa %16,1 da (Europako batez bestekoa baino 5,9 puntu handiagoa), eta Nafarroakoa, %15,9, hau da, (5,7 puntu gehiago 28-EBko langabezia-tasa baino).

b) Langabezia erregistratuaren bilakaera

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoetako (SEPE) langabezia-zerrendan izena emandako lagunen kopuruak erakusten du 119.586 lagunetan igo dela langabezian izena emandakoen kopurua 2007ko abendutik 2014ko irailera arte, hau da, %124,4 gehiago; 96.157tik 215.743ra.

EAEko bilakaera hauxe izan da epealdi horretan: 74.582tik 169.537ra, hau da, 94.955 lagun gehiago SEPEN izena emanik, %127,3 gehiago.


Nafarroan, bilakaera antzekoa izan da, 2007ko abendutik 2014ko irailera langabezia erregistratua %114,2 igo baita, 21.575 langabe izatetik 46.206 izatera; 24.631 gehiago.

2013ko abendutik hona izandako bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusiko dugu HEHn 3.119 lagun gutxiago daudela langabezian izena emanik; %1,4 jaitsi da. Hau da, 2014ako bederatzihilabetean oso gutxi jaitsi da langabezia erregistratua.

Bilakaera ezberdina izan da lurraldeen arabera. EAEn epealdi horretan 2.163 lagunetan igo da langabezia erregistratua, %1,3. Nafarroan, aldiz, 5.282 lagunetan jaitsi da; %10,3 alegia.

Horrela, 2014ko irailean, HEHn 215.743 lagun daude SEPEN izena emanik; 169.537 EAEn eta 46.206 Nafarroan.

Langabezia erregistratuaren bilakaera, HEH 2007- 2014ko iraila (abenduetan)



Iturria: SEPE

Langabezian izena emandakoen kopurua jaitea eragin duten beste arrazoi batzuk

- Gero eta jende gehiago doa atzerrira


SEPEn izena emandakoen kopurua jaisten ari da, besteak beste gero eta jende gehiago joaten ari delako atzerrira lan bila, hemengo egoerak behartuta.

HEHn, 2013an, migrazio-saldoa negatiboa izan zen, hau da, HEHra atzerritik datorren jendearen eta hemendik alde egiten duenaren arteko saldoak erakusten du 2013an 16.666 lagunek alde egin zutela. Gainera, saldo hori negatiboa izan da 2009tik hona; horrela, 2009tik 2013ra, 46.122 lagunek alde egin dute.

Lurraldez lurralde, EAEn, 2013an, migrazio-saldoak erakusten du 13.662 lagun gutxiago daudela. 2009tik hona, 39.532 lagunek alde egin dute.

Nafarroan, 2013an, migrazio-saldoa ere negatiboa izan da, 3.004 lagun gutxiago baitaude. Migrazio-saldoa, egia esan, negatiboa izan da 2010etik aurrera, eta urte hartatik hona metaturiko datua hauxe da: 8.654 lagun gutxiago.

Migrazio-saldoa 2008-2013, HEH



Iturria: INE


- Jende gehiago dago prestaziorako eskubiderik gabe

Beste arrazoi batek eraginda ere ez dago jendea izena emanik SEPEn, hots, ez dutelako langabezia-prestaziorik edo sorospenik jasotzeko eskubiderik.

HEHn, 2014ko abuztuan (argitara emandako azken datua) langabeen %50,7k ez du inolako prestaziorik edo sorospenik kobratzen; %19,3k sorospen motaren bat edo gizarteratzeko errenta aktiboren bat kobratzen du, eta %30ak bakarrik kobratzen du langabeziaren kotizaziopeko prestazioa.

Bilakaerak erakusten du 2008ko abendutik aurrera nabarmen okertu dela langabeen egoera. Izan ere, data hartan HEHko langabeen %48,5ek langabeziaren kotizaziopeko prestazio bat jasotzen zuten, eta handik 5 urtera, aldiz, zenbaki hori %31,2ra jaitsi zen. Prestaziorik batere kobratzen ez zutenen kopurua, ordea, nabarmen handitu zen; hau da, 2008an %34,3 ziren, eta 2013ko abenduan, aldiz, %48. Agerian dagoen bezala, joera horrek bere horretan dirau, eta 2014ko uztailleko azken datuek erakutsi dute egoerak okerrera egin duela.

Langabezia-prestazioen bilakaera. 2008-2014, HEH



Iturria: SEPE

Lurraldean araberako bilakaerak erakusten du EAEko langabeen %52,2k ez zuela inolako langabezia-prestaziorik jaso 2014ko abuztuan, eta %29,6k bakarrik jaso zuela kotizaziopeko prestazioren bat. 2008ko abendutik hona, 16,1 puntutan igo da prestaziorik jasotzen ez duten langabeen ehunekoa, eta 17,7 puntutan jaitsi da kotizaziopeko prestazio bat jasotzen zuten langabeen ehunekoa.

Nafarroan, langabeen %31,5k kotizaziopeko prestazio bat kobratzen du, hau da, 21,9 puntu gutxiago dira 2008ko abenduan baino. Deus ere ez kobratzen ez dutenak 16,3 puntu gehiago dira, %28,8tik %45,1era igaro baitira.


Langabezia-prestazioen bilakaera 2008-2014. EAE eta Nafarroa

	2008		2013		2014	
	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa	EAE	Nafarroa
Prestaziorik gabe	36,1	28,8	49,6	42,5	52,2	45,1
Sorospena edo						
Gizarteratzeko Errenta	17,0	17,8	19,8	24,1	18,2	23,4
Kotizaziopeko prest.	46,9	53,4	30,6	33,4	29,2	31,5

Iturria: SEPE

c) Gizarte Segurantzarako afiliazioa

Gizarte Segurantzarako afiliazioaren datuek ere ederki erakusten dute zenbat eta zenbat enplegu suntsitu den. Horrela, 2007ko abendutik 2014ko abuztura bitarte, Gizarte Segurantzarako afiliazioa guztira 139.784 lagunetan jaitsi da HEHn (%12,4);




haietatik 126.288 erregimen orokorrean zeuden afiliaturik.

EAEEn, Gizarte Segurantzarako afiliazioa 105.980 lagunetan jaitsi da epealdi berean, hau da, %12,1. Horietatik 94.409 araubide orokorrean zeuden. Nafarroan, bilakaera are txarragoa izan da. Izan ere, 2007ko abendutik Gizarte Segurantzarako afiliazioaren %13,5 galdu da; hau da, 33.804 lagun gutxiago, eta haietatik 31.879 araubide orokorrean zeuden.

2013ko abendutik hona izaniko bilakaerari erreparatuta, ikusiko dugu HEHn 571 lagun gutxiago daudela afiliaturik; zehazki, 4.871 gutxiago EAEEn, eta 4.299 gehiago, Nafarroan.

Gizarte segurantzarako afiliazioa, guztira, HEH 2007-2014 (abenduan)



Iturria: Gizarte Segurantza

Araubide orokorraren bilakaerari dagokionez, 2.779 lagunetan jaitsi da 2013ko abendutik hona HEHn. Lurraldez lurralde, EAEEn 4.364 lagun gutxiago daude araubide orokorrean afiliaturik, eta Nafarroan, 1.585 gehiago.

Gizarte segurantzarako afiliazioaren bilakaera. 2013ko abendutik 2014ko abuztura, HEH

	Araubide orok.	Guztira
EAE	-4.364	-4.871
Nafarroa	1.585	4.299
HEH	-2.779	-571

Iturria: Gizarte Segurantza

5. Lan-baldintzak gero eta okerrago


a) Aldi baterako kontratazioa

Enpleguaren prekarizazioa eragiten duen elementuetako bat behin-behinekotasuna da. Hori argi eta garbi ikusi da azken urteotako enplegu-suntsipen izugarrian, horrek aldi baterako kontratudunak ukitu baititu gehien.

Horrela, 2007ko bukaeran, behin-behinekotasun tasa %28,2 zen HEHn (%28,3 EAEEn, eta %27,5, Nafarroan), eta aldiz, 2014ko bigarren hiruhilekoan, %21,3 izan da (%21,2 EAEEn, eta %21,4, Nafarroan). Aldi baterako enplegua suntsitu da eta, aldi berean, aldi baterako kontratuen pisua igo da enplegu-bulegoetan erregistraturiko kontratazioan. Horrela, 2007ko abenduan sinatutako kontratu guztien %90,7 aldi baterakoa izan zen; 2014ko irailean, aldiz, zenbaki hori %93,6eraino igo da (2,9 puntu gehiago).

Lurraldez lurraldeko bilakaerari dagokionez, EAEko aldi baterako kontratazioa %91,2 izatetik %93,1 izatera pasatu da epealdi horretan bertan (1,9 puntu gehiago). Nafarroan, jautzia handiagoa izan da, %89tik %94,8ra igaro baita, 2007ko abendutik 2014ko irailera (5,8 puntu gehiago).

Aldi baterako kontratuen bilakaera, guztien gainean. 2007tik 2014ko irailera. HEH



Iturria: SEPE


b) Kontratazio partziala

Kontratuetan, beraz, gora egin du behin-behinekotasunak, eta gainera, kontratu partzialak gero eta gehiago dira.

HEHn, 2014ko lehen sei hilean sinatu diren kontratuen %36,1 lanaldi partzialekoak izan dira. Horrek esan nahi du 2007tik hona kontratazio partziala 6,5 puntutan igo dela, urte hartan sinatu ziren kontratu partzialak %29,6 izan baitziren.

Lurren lurren, EAEn 2014an sinatutako kontratuen %39,4 partzialak izan dira; 8,9 puntu gehiago 2007an baino (%30,5). Nafarroan kontratuen %28 partzialak izan dira 2014an; hau da, 1,7 puntu gehiago 2007an baino (%26,3).

Kontratazio partzialaren bilakaera, 2007-2014, HEH



Iturria: SEPE


Kontuan hartu behar da denbora partzialeko bi kontratu dituen pertsona berbera bi kotizatzaile gisara kontabilizatua dagoela Gizarte Segurantzarekiko kotizazioetarako. Horrela, denbora partzialeko kontratazioan gertatzen ari den igoerari erreparatuta, iduri du enplegua handitzen ari dela, baina hori ez da horrela.

Gero eta ordu gutxiago lan egiten dira

Partzialtasunaren erakusgarri, lan-kontratu gehiago sinatu badira ere, gero eta ordu gutxiago lan egiten dira.

Eustat-ek (Euskal Estatistika Erakundea) argitaratzen du zenbat lanpostu diren EAEn denbora osoko baliokidetzan. Datu horiek 2007tik hona aztertzen baditugu, ohartuko gara denbora osoko baliokidetzako lanpostuak gero eta gutxiago direla; 2014ko lehen hiru hilabetean 874.604 zeuden, hau da, 1.312 gutxiago 2013ko azken hiru hilabetean baino (875.916), eta 113.867 gutxiago, 2007ko azken hiru hilabetean baino (988.471).


Denbora osoko baliokidetzako lanpostuak, 2007-2014, EAE



Iturria: Eustat

Aldiz, 2014ko urtariletik martxora sinaturiko lan kontratu kopurua %11,2 igo da (16.024 kontratu gehiago) 2013ko epealdi berean baino (159.450 eta 143.426, hurrenez hurren), eta 2013 osoan, 5.419 kontratu gehiago sinatu ziren 2012an baino (678.945 eta 673.526, hurrenez hurren).

Lan kontratuak, guztira, 2013-2014, EAE




Iturria: SEPE

c) Prekarietateak soldata apalagoak eragiten ditu

Lan-prekarietateak soldata apalagoak eragin ditu azken urteotan. Horren erakusgarri da zeinen alde handia dagoen lurraldeen arabera eta kontratazio motaren arabera.

EAEn, urteko soldata batez beste 26.535,6 euro izan da 2012an, hau da, 2008an baino 988,5 euro gehiago (ez dago aurreko daturik). Hala ere, datuak asko aldatzen dira kontratazio motari erreparatuta.

Urteko soldata EAEn 28.355 eurokoa izan da batez beste 2012an, kontratu mugagabeari dagokionez. Bestalde, aldi baterako urteko



soldata 18.915 eurokoa izan da batez beste. Horrela, bi kontratu horien soldaten arteko aldea 9.440 eurokoa da.

Nafarroan, batez beste urteko soldata 23.784,4 eurokoa izan zen. Kontratu mugagabea dutenek 25.498,4 euro irabazi zuten.

Aldi baterako kontratua dutenek, ordea, askoz ere gutxiago irabazi dute batez beste urtean: 16.496,3 euro.

Urteko irabaziak batez beste. Bilakaera 2008-2012 HEH

		2012
Nafarroa	Guztira	23.784,4
	Iraupen mugagabea	25.498,4
	Iraupen mugatua	16.496,3
EAE	Guztira	26.535,6
	Iraupen mugagabea	28.355,0
	Iraupen mugatua	18.915,0

Iturria: INE

Soldaten bilakaera ebaluatzerakoan, esan behar da ez dugula estatistika fidagarririk. Horren haritik, ona litzateke foru ogasunek soldaten bilakaerari buruzko datuak argitara ematea hiruhilekoan behin, eta datuak kolektiboz kolektibo egokiro zehaztuak.

6. Enpleguaren egoerari buruzko ondorioak

- **Egoera oso kezagarria da.** HEHn enplegua erruz suntsitu da, eta langabezia mailak (%17,4) hirugarren handiena izaten jarraitzen du Europako lurraldeen artean; zehazki, 7,1 puntu altuagoa da 28-EBkoa baino.
- **Langabezia erregistratua jaisteak ez du esan nahi enplegua sortzen ari denik.** Azken hilabeteotan behera egin du langabe kopuruak, baina horrek ez du esan nahi enplegua sortzen ari denik. Beste arrazoi batzuek ere eragiten dute jaitsiera, hala nola lan bila aritzeko desanimuak, 2009tik hona HEHn 46.000tik gora laguneko migrazio-saldo negatiboa izateak, eta langabeen

%53,7k inolako langabezia-prestaziorik ez jasotzeak. Eustat-ek, gainera, erakusten du gero eta gutxiago direla lanaldi osoko baliokidetzako lanpostuak; beraz, horrek frogatzen du oraindik ere enplegua suntsitzen ari dela.

- **ekoizpen-eredu industrialak pisua galdu du.** Datuek erakusten dute industria-sektoreetan oraindik ere enplegua suntsitzen ari dela, eta zerbitzuetan igotzen ari dela, eta gauza jakina da zerbitzuetan oro har lan-baldintzak kaskarragoak direla.
- **Gizarte segurantzarako afiliazio berri gehiena ez dagokio araubide orokorrari.** Gizarte Segurantzaren afiliatu gehiago daude, baina honako hau hartu behar da kontuan:
Lan partziala handitzearekin bat, denbora partzialeko bi kontratu edo gehiago dituen pertsona berbera bi afiliazio edo gehiago dira Gizarte Segurantzaren. Beraz, Gizarte Segurantzarako afiliazioak ugaritzeak ez du esan nahi jende gehiago lanean ari denik. Gainera, kontuan hartu behar da afiliazio horietako asko gertatu direla enpresek bere jardueraren zati handi bat gero eta gehiago kanpora ateratzen ari direlako eta azpikontratatzeko ari direlako, eta horrek, jakina, prekaritatea areagotzen du. Gizarte Segurantzarako afiliazio berrien %38 besterik ez da araubide orokorrean izan. Horrek esan nahi du jendea autonomoen araubidera eta gainerako araubide berezietara jotzen ari dela enplegu bila.
- **Prekaritatea gero eta handiagoa da kontratazio berrietan.** Gora egin dute aldi baterako kontratuek eta denbora partzialeko kontratazioak. Beraz, horrek esan nahi du soldatak apaltzen ari direla. Horren bidez, enpresek baldintza duineko lanaren orde enplegu prekarioak eta minijobak eskaintzen dituzte.

Oharrak

A series of horizontal dotted lines for writing notes.